

TOKI ADMINISTRAZIOA

3

ADMINISTRACIÓN LOCAL

AZKOITIKO UDALA

Iragarkia

Espedientean jasotzen diren azterketa eta jarduketa ego-kiak egin ondoren, Udalbatzak 2016ko urriaren 26an egindako batzarraldian 2017rako ur hornikuntza, saneamendu eta azpiegituren tasak hasieraz onartzea erabaki zuen, 2017ko urtarrila-
ren 1etik aurrerako ondorioekin.

Hartu den erabakiaren eta horretarako ireki den espedien-
tearen berri ematen zaio jendeari, uztailaren 5eko 11/1989
Foru Arauak, Gipuzkoako Toki Ogasunak arautzekoak, 16.1 arti-
kuluan xedatutakoaren arabera, iragarkiak Gipuzkoako ALDIZKARI
OFIZIALEAN, udaletxeko ediktu taulan eta Gipuzkoan hedapen
handienetako egunkari batean argitaratuz, artikuluko hartako 2
zenbakiak exijitutakoari jarraiki, eta guzti hori honako erregelen
arabera:

a) *Agerian dagoen tokia:* Azkoitiko Udaletxeko Kontuhar-
tzaitetzan.

b) *Aztertu eta, hala dagokionean, erreklamazioak egiteko*
epea: 30 lanegun, iragarki hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN
argitaratu eta ondoko lanegunetik hasita, bulego orduetan.

c) *Nortzuk duten erreklamatzeko bidezkotasuna:* uztaila-
ren 5eko 11/1989 Foru Arauak 17. artikuluan zerrendatutakoek.

d) *Aurkezteko lekua:* Udaletxeko Sarrera Erregistro Oroko-
rra. Halaber, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura
Erkidearen, urriaren 1eko 39/2015 Legeak 16.4 artikuluan
xedatutako lekuetan ere aurkeztu ahal izango dira.

e) *Zer organori jarri errekurtsua:* Udal Batzarra.

Haren berri emateko arauzko epea inolako erreklamazio
edo oharpenik aurkeztu gabe bukatu ondoren, hartu diren era-
bakiak behin-betirako onartutzat joko dira, erabaki berririk
gabe.

Azkoitia, 2016ko urriaren 26a.—Alkatea. (7473)

AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

Anuncio

Tras los estudios y actuaciones pertinentes que obran en el
expediente de su razón, el Pleno Municipal, en sesión celebrada
el día 26 de octubre de 2016, acordó aprobar provisionalmente
con efectos de 1 de enero de 2017, las tasas de abastecimiento
de agua, saneamiento e infraestructuras para 2017.

El acuerdo adoptado, y el expediente al efecto instruido, se
someten a información pública en cumplimiento de lo dispuesto
en el art. 16.1 de la Norma Foral 11/1989, de 5 de julio, Regu-
ladora de las Haciendas Locales de Gipuzkoa, mediante publi-
cación de anuncios en este medio oficial, en el Tablón de Edic-
tos de la Casa Consistorial y también en un periódico de los de
mayor difusión de Gipuzkoa según exige el n.º 2 del citado artí-
culo, todo ello conforme a las siguientes reglas:

a) *Lugar donde se hallan de manifiesto:* En el departa-
mento de Intervención del Ayuntamiento de Azkoitia.

b) *Plazo para examinarlos y en su caso para formular las*
reclamaciones: 30 días hábiles contados a partir del siguiente
hábil al de la inserción de este anuncio en el BOLETIN OFICIAL de
Gipuzkoa, en horario de oficina.

c) *Legitimados para reclamar:* Los que relaciona el art. 17
de la Norma Foral 11/1989, de 5 de julio.

d) *Lugar de presentación:* En el Registro General de
Entrada del Ayuntamiento. También podrán presentarse en los
lugares que señala el artículo 16.4 de la Ley 39/2015, de 1 de
octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Admi-
nistraciones Públicas.

e) *Órgano ante el que se recurre:* Ayuntamiento Pleno.

Una vez transcurrido el plazo reglamentario de esta informa-
ción sin que se haya producido reclamación u observación
alguna, se tendrán por definitivos los acuerdos adoptados, sin
necesidad de nuevos acuerdos.

Azkoitia, a 26 de octubre de 2016.—El alcalde. (7473)